



Fan Hemendik eguna ospatuko dute bihar Oñatin

ARGIA/LA HAINE :: 21/06/2024

Hainbat ekintza egingo dituzte, Espainia eta Frantziako indar armatu eta polizialen presentzia Euskal Herrian salatzeke.

Fan Hemendik eguna ospatuko dute ekainaren 22an Oñatin, Espainia eta Frantziako indar armatu eta polizialen presentzia Euskal Herrian salatzeke. Konfrontazio armatuaren garaiko jarduera bera izan ez arren, Euskal Herriak Europa osoko lurralde militarizatuena eta biztanleko indar armatu gehien dituen izaten jarraitzen duela salatu dute.

Euskal Herrian Guardia Zibilaren kuartel bat duen udalerrietako bat da Oñati. Fan Hemendikeko kideek diote ez dutela ahaztu ekainaren 25ean 34 urte beteko direla Susana Arregi oñatiarra Guardia Zibilak Irunberrin hil zuela. Azpimarratu dutenez, haien presentziak ez du "errepresioa eta estutuen batasuna indarrez bermatzea ez den beste justifikaziorik" eta Oñati kuartelik gabeko herria izatea eskatu dute.

Bihar, eguerdiko 12:00etan poteo girotua egingo dute gaztetxean, 15:00etan bazkari herrikoia eta 18:00etan, manifestazioa egingo dute.

<https://eh.lahaine.org/fan-hemendik-eguna-ospatuko-dute>